

PROIEKTUAN AZTERTU BEHARREZKO ATALAK:



2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Zein da zure bezeroa?

12 urtetik gorako pertsonak izango dira produktu honen bezeroak.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Pertsona helduentzako edo gurasoentzatzako bideratzea pentsatu dugu. 8 urteko ume batek ez baitu makina hori erosteko ahalmenik izango, haurra haren gurasoekin egongo baita momentu oro, beraz, etxeko helduentzako ekoiztea izango litzateke logikoena (12tetik gorakoak). Banakoa izatearekin nahikoa izango litzateke. Gainera, ikastolan ikasgelako makina bat gutxienez egotea oso egokia izango litzateke, jende askok erabiltzen baititu maskarila kirurgikoak, eta horiek lau orduz behin aldatu behar dira. Horrek esan nahi du egunero klasean bi maskarila erabili beharko direla. Hortaz, ekimen egokia izango litzateke maskarila erabilgarriagoa izan dadin, materialak berrerabili ahal izango dira, maskarila berriak sortzeko eta deskonposatu daitezkenekin konposta sortzeko.

